

FUNTZESKO JARDUERAK

Funtsezko Jarduerak, gure proiektuak funtziona dezan egin behar diren ekintza nagusiak:

Gure proiektuak negutegietako ureztatzearen kudeaketa optimizatzeko helburua du, ura alferrik ez galtzeko eta laborantzak estres hidrikoarekin ez kaltetzeko. Horretarako, balio-proposamena eraikitzen duten funtsezko jarduerak hauek dira:

Gure soluzioaren oinarria sentsoare adimendunak + datu bidalketa + alerten sistema denez, jarduera hau ezinbestekoa da eta ez da kanporatu daitekeen atala (Gure sentsoaren teknologia delako).



Horretarako Lurreko hezetasun-sentsoaren eta ur-maila neurtzeko sistemaren diseinu eta kalibrazioa dugu, Hardwarearen muntaketa eta prototipo funtzionalaren ekoizpena, Softwarea eta kontrol-plataforma garatzea, hau da, ureztatzearen datuak jasotzeko eta alertak bidaltzeko eta Kalitate-kontrola esaterako.

Arazoen konponketa eta sistema egokitzapena:

Gure bezeroek (nekazariak eta negutegietako kudeatzaileak) arazo praktikoak dituzte ureztatzearen jarraipenarekin. Horregatik, gure balio-proposamenaren parte nagusia da arazo horiek konpontzea eta euren beharretara egokitzea.

Horretarako erabiltzaileak topatzen dituzten arazo teknikoak diagnostikatu eta konpontzeko prest gaude, etorkizunera begira, horrelako arazorik ez izateko eta bezeroekiko tratua eta itxura, bezero gehiagori zabalduta egon ahal izateko.